

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Zientziari



ARITZ GALARRAGA

Gogoan duzue *Super size me* dokumentala? Hogeita hamar egunean janari azkarra besterik jaten ez zuen tipoarena? Nola ikus zitekeen zer ondorio dituen dieta horrek giza-banakoaren osasun fisiko eta psikologikoan? Berriz gogoratu dut neronek, orain ez asko gisa horretako jatetxe batera joan garelako. Eta egun bakarreko otordu bakarra izan arren, hasi nintzen dagoeneko sumatzen ondorioen bat, gerribuelta hazi egin zitzaidala, adibidez –tira, prozesua atzeragotik zetorren, egia da-. Eta, dei nazazue masoka, baina dokumental haren antzeko zerbait egiteko gogoia sartu zitzaidan.

Dena esatera, beti nahi izan dut halako erronkaren batean parte hartu, onuragarri sentitu, neure burua zientziari eskaini. Muturreko esperientziarako ahulegi –luze gabe, zulo batean 532 egun pasatzeko, edo hamar egun komisaldegia batean inkomunikatuta-, nire neurrikoago zerbait egingo nuke, baina berdin humanitatearentzako baliagarria. Adibidez, urtebete pasa nezake euskal literatura soilik irakurtzen, gero ikusteko horrek zer eragin duen organismoan, burmuinaren masa muskularra galtzen ote den, edo irakurmen gaitasuna zenbateraino geratzen den kaltetuta. Gutxitxo iruditzen bazaizue, Moriartitarren filmografia osoa irents nezake buklean, astebetetz, ea hortik Oscarretarako hautagai fermu bat ateratzen den, edo *serial killer* bat. Aseezinak bazarete, bizi ninteke, hil arte –jar dezagun dozena bat urte, asko jota-, Zubietako ingurumen gu-nearen ondoan; ahal dela etxeagatik ezer ordaindu gabe, noski. Baina begira zer esaten dizuedan: zientziaren izenean, prest nengoke EAJri botoa behin emateko ere, ikertzeko sortzen ote duen adikzio klaseren bat, Eroskiko fidelizazio txartelaren moduko zerbait izan daitekeen.

Talaia paregabe honetatik, beraz, zientziari eskaintzen diot nire gorputza, eskuzabalki. Azkar onar nazatela, hori bai, sukaraldia pasa baino lehen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

"KITXUA HIZKUNTZAK EZ LUKE LOTSATZEKO ARRAZOI IZAN BEHAR"

ROXANA QUISPE COLLANTES, PERUKO LITERATURAN ADITUA

Historian lehenengo aldiz kitxuaz idatzi den doktoretza-tesiaren egilea da Quispe: "Kitxua hizkuntzak ez luke lotsatzeko arrazoi izan behar, eta ez soilik etxean hitz egiteko, sukaldean, lagunartean, profil baxuko solasaldietan, ez; nire nahi handietako bat izan da kitxua akademia munduan sartu ahal izatea". Peruko beste 47 hizkuntzek garrantzi bera dutela gaineratu du. Perun, 3.800.000 biztanle inguruk aitortu du kitxua jatorrizko hizkuntza duela.

TVPERÚ NOTICIAS (2019/10/20)

